

CAJA LABORAL POPULAR COOP. DE CRÉDITOREN KONTSEILU ERREKTOREAREN ARAUDIA

2023ko azaroaren 3a

Onespena: 2012-11-27ko KEa (1/2012 akta).

Araudi berriaren onespena: 2013-07-8ko KEa (7/2013 akta).

17. artikuluen aldaketa: 2014-03-03ko KEa (3/2014 akta).

Araudiaren berrespena: 2014-04-05eko BNa.

10. eta 11. artikuluen aldaketa eta 11. bis artikuluen onespena: 2014-10-31ko KEa (10/2014 akta).

18. artikuluko 1. atalaren aldaketa: 2015-02-27ko KEa (3/2015 akta).

11. bis artikuluko 3. atalaren aldaketa: 2015-02-27ko KEa (4/2015 akta).

10., 11. eta 11. bis artikuluen aldaketa: 2016-04-4ko KEa (4/2016 akta).

11. artikuluen aldaketa: 2016-04-29ko KEa (5/2016 akta).

5., 7., 17. eta 18. artikuluen aldaketa: 2021-03-31ko KEa (5/2021 akta).

4., 5., 9., 11., 17. eta 26. artikuluen aldaketa: 2022-09-30eko KEa (2022/11 akta).

2., 4., 7., 10., 15. eta 26. artikuluen aldaketa: 2022-11-30eko KEa (14/2022 akta).

10., 17., 26. eta 36. artikuluen aldaketa: 2023-11-03ko KEa (10/2023 akta).

AURKIBIDEA

I. TITULUA – SARRERA	4
1. artikulua - Helburua	
2. artikulua - Aplikazio-eremua eta zabalkundea	
3. artikulua - Onartzea, aldatzea eta interpretatzea	
 II. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIOAK ETA ESKUMENAK	5
4. artikulua - Kontseilu Errektorearen eginkizun orokorrak	
 III. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA	7
5. artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kuantitatiboa	
6. artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kualitatiboa Kideen egokitasuna	
 IV. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN EGITURA	8
7. artikulua - Kontseilu Errektoreko lehendakaria	
8. artikulua - Kontseilu Errektoreko lehendakariordea	
9. artikulua - Kontseilu Errektoreko idazkaria	
10. artikulua – Ikuskaritza eta Araudia Betearazteko Batzordea	
11. artikulua – Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea	
11. bis artikulua – Arrisku Batzordea	
 V. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA	18
12. artikulua - Bilerak	
13. artikulua – Saioen garapena	
 VI. TITULUA – KONTSEILARIAK IZENDATZEA ETA KARGUA UZTEA	19
14. artikulua - Kontseilariak izendatzea	
15. artikulua - Kontseilariak izendatzeko prozedura	
16. artikulua - Kontseilariak berrautatzea	
17. artikulua - Karguaren iraupena	

18. artikulua - Kontseilariak kargua uztea	
19. artikulua - Bozketen objektibotasuna eta sekretua	
VII. TITULUA – KONTSEILARIA INFORMATZEA	22
20. artikulua - Informatzeko eta aztertze ahalmenak	
21. artikulua - Adituen aholkularitza	
VIII. TITULUA – KONTSEILARIAREN ORDAINSARIA	23
22. artikulua - Kontseilariaren ordainsaria	
IX. TITULUA – KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK.....	24
23. artikulua - Kontseilariaren betebeharrak orokorrak	
24. artikulua - Kontseilariaren konfidentzialtasun-betebeharra	
25. artikulua - Lehian ez jarduteko betebeharra	
26. artikulua - Interes-gatazka	
27. artikulua - Aktibo sozialen erabilera	
28. artikulua - Publikoa ez den informazioa	
29. artikulua - Negozio-aukerak	
30. artikulua - Zeharkako eragiketak	
31. artikulua - Kontseilariaren informatzeko betebeharra	
32. artikulua - Gardentasun-printzipioa	
33. artikulua - Kontseilarien erantzukizuna	
X. TITULUA – KONTSEILUAREN HARREMANAK	28
34. artikulua - Harremanak bazkideekin	
35. artikulua - Harremanak publiko orokorrekarekin	
36. artikulua - Harremanak auditoreekin	

* * * * *

I. TITULUA – SARRERA

1. artikulua – Helburua

Kontseilu Errektorearen Araudi honek (aurrerantzean, **Araudia**) **CAJA LABORAL COOP. DE CRÉDITOren** (aurrerantzean, **Entitatea, Kooperatiba** edo **LABORAL KUTXA**) administrazioz onena bermatzeko neurriak biltzen ditu, legeriarekin, Estatutu Sozialekin eta Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuarekin bat. Bertan daude zehaztuta Kontseilu Errektorearen jardueraprintzipioak, haren antolamendu- eta funtzionamendu-arauak, kontseilukideen jokabide-arauak, eta haien jardunbidea zuzentzeko printzipio orokorrak.

Funtsean, printzipio orokor hauek erabiliko ditu Kontseilu Errektoreak Entitatea gobernatzeko:

- eraginkortasuna
- erantzukizuna
- gardentasuna
- leialtasuna
- egokitasuna
- sekretua
- fideltasuna
- independentzia

Orain formalizatzen diren printzipio horiek izaera irekia dute eta Entitatearen Kontseilu Errektorearen osoko bilkuraren erabakiz aldatu ahal izango dira, baldin eta indarrean dagoen legeriaren, Estatutu Sozialen eta Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuaren aurka ez badoaz.

2. artikulua - Aplikazio-eremua eta zabalkundea

Araudi hau Kontseilu Errektoreari, batzordeei eta Kontseilu Errektoreko eta batzordeetako kideei aplikatuko zaie. Horretarako, Kontseiluko idazkariak ale bana emango die horiei guztiei.

3. artikulua - Onartzea, aldatzea eta interpretatzea

Araudi hau Kontseilu Errektoreak onartu behar du, kideen gehiengoaren adostasunarekin.

Lehendakariak edo 3 kontseilarik eskatuz gero, aldatu egin ahal izango da, baina justifikazio-memoria bat aurkeztu beharko dute eskaerarekin batera. Araudia aldatzeko eta aldaketak balioa izateko, horren alde agertu beharko dute bildutako kontseilarien 2/3ek.

Kontseilu Errektoreak erabakiko du noiz sartuko diren indarrean Araudia nahiz ondorengo aldaketak. Horren inguruan ezer zehatzik erabaki ezean, Araudia onartzeko edo aldatzeko erabakiak jasotzen dituen akta berretsi bezain laster sartuko da indarrean.

Aplikatzekoak diren lege- eta estatutu-arauekin bat interpretatuko da Araudi hau.

II. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN EGINKIZUNAK ETA ESKUMENAK

4. artikulua - Kontseilu Errektorearen eginkizun orokorrak

1. Kontseilu Errektorea kide anitzeko organoa da, Kooperatiba gobernatu, kudeatu eta ordezkatzearaz eta zuzendariak gainbegiratzeaz arduratzen dena. Helburu sozialari lotutako egintza guztietara hedatzen dira haren ordezkaritza-ahalmenak. Legean edo Estatutuetan beste organo sozial batzuei esleitzen ez zaizkien ahalmenak erabiltzeko eta jarduketara-gidalerro orokorrak zehazteko eskumena du. Bere jardunean, baina, legearen, Estatutuen, aplikatzekoa den gainerako araudiaren eta Batzar Nagusiak zehaztutako politika orokorraren mende aritu behar du.
2. Kooperatibaren jarduera arrunta Zuzendaritza Nagusiaren esku uztea eta gainbegiratze- eta kontrol-eginkizun orokorrean zentratzea da Kontseiluaren politika.

Kontseilu Errektoreari eta batzordeei aldizka helarazi beharreko txosten guztiak identifikatu eta horien zerrenda egin behar du Entitateak, honako datu hauek adierazita, besteak beste: dokumentuaren identifikazioa; dokumentuaren/jakinarazpenaren arduraduna; maiztasuna; Kontseilu Errektoreak edo bertako batzordeek hartu beharreko erabakia; jarraipena.

Areaz area identifikatu eta zerrendatu egingo dira Kontseilu Errektoreak onartutako politika, prozedura eta eskuliburu garrantzitsuenak eta nabarmenenak. Dokumentuek honako datu hauek adieraziko dituzte: onarpenaren data; berrikusteko aurreikusita dagoen data; organismo sustatzailea; gaia eta azalpen laburra; inplikaturako kolektiboa; taldean edo entitate-mailan aplikatzen ote den.

Kontseilu Errektoreak onartzen duen politika bakoitzean Entitateak zehaztu egin behar du politika hori taldeko sozietateei aplikatuko zaien.

Dagokionean, eredu izan behar da, taldeko sozietate bakoitzak politika hori bere negozio-eredura egokitu dezan.

3. Ez ditu eskuordetuko, ordea, legeak Kontseiluaren eskumen eskusibotzat jotzen dituen ahalmenak, zuzenean ezagutzeko erreserbatuta dituenak, edota gainbegiratze-eginkizun orokorra arduraz gauzatzeko ezinbestekoak dituenak.
4. Azken ondore horietarako, Kontseiluak erantzukizun hauek izango ditu bereziki:
 - Kooperatibaren estrategia orokorrak onartzea.
 - Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburutik ondorioztatzen direnak.
 - Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeek txostena egin ondoren, arduradun hauek izendatzea, berritzea eta, dagokionean, kargugabetzea, eta baita dagozkien ordainsariak erabakitzea ere: zuzendari nagusia, areako zuzendariak, departamentu-zuzendariak, BAZeko zuzendaria eta kargu horietan ez dauden bigarren eta hirugarren babes-lerroko arduradunak (Arriskuaren Kontrol Globala, Araudia Betearazteko Departamentua eta Barne Ikuskaritza), bai eta indarrean dagoen araudiarekin bat eta adierazitako prozesuak formalki dokumentatuta izendatu behar den beste edozein kargu.
 - Barne-kontrolerako eta informaziorako sistemak ezarri eta horien jarraipena egitea.
 - Kapitalak zuritzeari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzearen alorretan arau-arriskuak gainbegiratzea, kontrolatzea eta kudeatzea.
 - Ohiko Batzar Nagusiari ekitaldiko urteko kontuak, kudeaketa-txostena eta soberakinak banatzeko edo galerak egozteko proposamena aurkeztea.
 - Eta, oro har, Kooperatibaren aktibo garrantzitsuak erabiltzea dakarten eragiketak eta sozietate-eragiketa handiak egitea.
5. Kooperatibaren helburu soziala betez, enpresa- eta finantza-estrategiak zehaztu eta berrikusiko ditu Kontseiluak, betiere honako hauek kontuan izanik:
 - Kooperatibaren plangintzak oinarri sozialari zerbitzu egokia eskaintzean oinarritu behar du, eta, aldi berean, irabazi ziurrak eskuratzean eta Kooperatibaren epe luzeko fluxuak maximizatzean.
 - Inbertsio-proiektu berriak erabakitzen direnean, etekin egokia eskuratzea izan behar da helburua, betiere Kooperatibaren kapital-kostua kontuan hartuta.
 - Kooperatibaren eragiketa guztiak etengabe berrikusi behar dira, kostuaren aldetik eraginkorrak izan daitezen.
 - Garrantzitsua da Kooperatibaren Heziketako eta Sustapeneko Funtzari egindako zuzkidurak egoki banatzea, Kooperatibaren oinarri sozialaren beharrezanez erantzuteko eta lurraldearen garapenari arreta berezia eskaintzeko.
6. Antolamendu korporatiboaren esparruan, Kontseiluak behar diren neurriak hartuko ditu honako hauek ziurtatzeko:

- Zuzendaritzak Kooperatibaren helburu soziala betetzea bilatzen duela, eta horretarako motibazio egokia duela.
 - Kontseiluak Kooperatibaren Zuzendaritza gainbegiratzen duela.
 - Ezein pertsonak edo pertsona-talde txiki ez duela kontrapisu edo kontrolen mende ez dagoen erabaki-ahalmenik.
 - Bazkide batek ere ez duela jasotzen lehentasunezko trataturik.
7. Kontseilu Errektorearen esku egongo da Kooperatibaren helburu soziala betetzea, betiere zuzenbideak agindutako betebeharrak errespetatuz; langile, gordailugile, hornitzaile, hartzekodun eta bezeroekin egindako hitzarmen esplizitu eta inplizituak fede onez betez, eta, oro har, negozioen gidaritza arduratsuak dakartzan betebeharrak etikoei zentzuz atxikiz.
8. Kontseilu Errektoreak behatuko du Kooperatibaren eremu guztietan —bai bazkideei eta organo sozialei lotuta daudenetan eta bai lanarekin eta horren ordainketarekin lotura dutenetan— ez dela pertsonarik diskriminatzen generoagatik, arrazagatik, koloreagatik, jatorri etniko edo sozialagatik, ezaugarri genetikoengatik, hizkuntzagatik, erlijioagatik, sinesmen edo iritziz politikozagatik edo beste era batekoengatik, gutxiengo nazional bateko kide izateagatik, jabetzagatik, jaiotzagatik, desgaitasunagatik, adinagatik, sexuagatik edo orientazioagatik.

III. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN OSAERA

5. artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kuantitatiboa

1. Kooperatibako Kontseilu Errektoreak 14 kide izango ditu gutxienez, eta 15 gehienez. Kooperatiba legez 15 kide izatera behartuta badago, kontratu mugagabea duen Kooperatibako langile bat izango da, eta ezingo da aldi berean beste erakunde bateko langile aktiboa izan, ezein tituluren bidez ere. Gainerako kontseilarien agintaldi eta erregimen berak izango ditu, eta Kooperatibaren araudian aurreikusitako baldintzetan hautatu eta kargugabetu ahal izango da.

Kontseilu Errektoreko 4 kide lan-bazkideen artean izendatuko dira.

2. Batzar Nagusiak aukeratuko ditu kontseilariok, bozketa sekretuaren bidez eta boto-kopururik handienaren arabera.
3. Kontseilaria pertsona juridikoa bada, pertsona fisiko bat aukeratu beharko du karguari dagozkion funtzioak bete ditzan.

6. artikulua - Kontseilu Errektorearen osaera kualitatiboa Kideen egokitasuna.

1. Kontseilari guztiek ohore komertzial eta profesional aintzatetsia izan beharko dute, eta, era berean, eginkizun horiek betetzeko ezagutza eta esperientzia egokiak, Entitatearen gobernantza ona garatzeko prestutasuna eta beren sozietate-eskubide guztiak erabiltzeko aukera. Horretaz gain, Kreditu Kooperatibei buruzko 1989ko maiatzaren 26ko 13/1989 Legeak eta lege hori garatzeko Erregelamendua onartzen duen 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuak xedatutako eskakizun guztiak bete beharko dituzte. Eskakizunok aplikagarriak dira, halaber, langileak ordezkatzan dituen kontseilariari ere.
2. Kontseilu Errektoreko kideen egokitasuna balioztatzeko, 1993ko urtarrilaren 22ko 84/1993 Errege Dekretuaren 2. artikuluan eta Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan zehaztutako irizpideak errespetatu beharko dira.

IV. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN EGITURA

7. artikulua - Kontseilu Errektoreko lehendakaria

Kontseilu Errektoreko lehendakariak izango du Kooperatibaren legezko ordezkartza; dena den, erantzun egin beharko du, baldin eta bere jardunean Batzar Nagusiaren eta Kontseilu Errektorearen erabakiak betetzen ez baditu.

Horren harira, eginkizun hauek izango ditu:

- a. Bide judizialetan nahiz judizioz kanpokoetan Kooperatibaren izenean aritzea, orotariko egintza, negozio juridiko eta kontratuetan, bai eta era guztietako ekintza eta salbuespen guztietan ere.
- b. Parte hartzen duen organo sozialetako saio eta bilkura guztiak deitu eta zuzentzea, bertako eztabaidak bideratzea eta desbideratzerik ez egoteko eta Batzarrari gai-zerrendan ez dauden erabakiak aurkeztea eragozteko neurriak hartzea.
- c. Kontseilariak gai-zerrendan jasotako gaien inguruko informazio egokia garaiz jasotzen dutela egiaztatzea eta ziurtatzea.
- d. Organo sozialen erabakiak betetzen direla behatzea eta bermatzea.
- e. Sinadura soziala gauzatzea eta, bereziki, saioen aktak eta agiri sozialen inguruan argitaratzen diren egiaztagirak sinatzea, idazkariarekin batera.
- f. Kooperatibako organo sozialek hartutako erabakiak gauzatzea, kontrako erabakirik ez badago.

- g. Larrialdirik egonez gero, beharrezkotzat jotzen dituen premiazko neurriak hartzea. Kontseilu Errektoreari berehala eman beharko dio neurrion berri, eta horrek erabakiaren egokitasuna ebatziko du, salbu eta gai hori Batzarren eskumenekoa bada; kasu horretan, behin-behineko gutxieneko neurriak hartu ahal izango ditu soilik, eta Batzar Nagusia berehala deitu beharko du, horien inguruko azken erabakia har dezan.
- h. Kontseilu Errektorearen batzordeekin koordinatzea, haren aldizkako ebaluazioa egiteko.
- i. Duen ordezkariaren ondorioz sor litekeen beste edozein.

8. artikulua - Kontseilu Errektoreko lehendakariordea

Lehendakariordearen eginkizuna da lehendakaria ordezkatzeko, kanpoan, gaixorik edo ezinduta dagoenean. Bere egingo ditu, halaber, Kontseilu Errektoreak edo lehendakariak agintzen dizkieten gainerako eginkizunak ere.

9. artikulua - Kontseilu Errektoreko idazkaria

Idazkariaren egitekoak dira:

- a. Bilkuren eta bertan adostutako erabakien legezkotasun formala eta materiala behatzea.
- b. Bazkideen eta ekarpenen erregistro-liburuak prestatu eta zaintzea, bai eta Batzar Nagusiaren, Kontseilu Errektorearen eta, dagokionean, parte hartzen duen gainerako organoen aktak ere.
- c. Saio bakoitzaren akta idaztea. Bertan jasoko ditu, gutxienez, deliberazioen toki eta data, bertaratuen eta ordezkatuaren kopurua, lehen edo bigarren deialdian egin den, eztabaidatutako gaien laburpena, gaiak nola landu diren eta eztabaidak nola egin diren, aktan jasotzea eskatu diren esku-hartzeak, hartutako erabakiak eta bozketen emaitza, bat etorri ez diren botoak adierazita.
- d. Lehendakariaren sinaduraz baimendutako egiaztagirak egitea, dagokionean horri lotutako liburu eta agiri sozialak ere aipatuz.
- e. Entitateak bereganatu dituen gobernantza onari buruzko gomendioak betetzen direla bermatzea.
- f. Kontseilarien jardura behatzea, honako hauek bermatzeko:
 - Aplikatu beharreko lege eta araudien hitzen eta espirituaren arabera jokatzeko dutela.
 - Entitatearen Estatutu Sozialak eta barne-araudia errespetatzen dituztela.

- Korporazioaren gobernantza onari buruzko gomendioak kontuan hartzen dituztela.

g. Karguari lotutako beste edozein eginkizun.

Kontseiluaren osoko bilkurak izendatu eta kargugabetuko du idazkaria.

10. artikulua – Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea

1. Kontseilu Errektoreak bere barruan izendatuko du Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordea, eta berak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten. Gutxienez 3 izango dira, ez-exekutiboak guztiak, eta, horiek izendatzeko, kontuan hartuko ditu bakoitzaren ezagutza, gaitasunak eta esperientzia, eta Batzordearen zereginak. Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeko kiderik gehienek independenteak izan behar dute.
2. Kontseilu Errektoreak kide independenteen artean hautatuko du Batzordeko presidentea, eta 4 urtean behin ordeztu beharko du. Presidente hori berriro hautatu ahal izango da, kargua utzi eta urtebete igaro ondoren.
3. Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak eskumen hauek izango ditu gutxienez:
 - a. Bere eskumeneko gaietan aztertzen dituen auzien inguruko informazioa ematea Batzar Nagusiari, eta, bereziki, auditoretzaren emaitzaren ingurukoa. Hauxe azalduko dio, zehazki: auditoretzak nolako eragina izan duen finantza-informazioaren osotasunean eta Batzordeak zer eginkizun izan duen prozesu horretan.
 - b. Entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasuna, barne-ikuskaritza eta arriskuak gestionatzeko sistemak gainbegiratzea, eta, horrekin batera, kontu-auditorearekin eztabaidatzea auditoretza egitean antzemandako barne-kontrolako ahulezia nabarmenez, haren independentzia kolokan jarri gabe. Ondore horietarako, eta behar izanez gero, gomendioak edo proposamenak egin ahal izango dizkio Kontseiluari, eta horien jarraipena egiteko epea ezarri ahal izango du.
 - c. Nahitaezko finantza-informazioa prestatu eta aurkezteko prozesua gainbegiratzea, eta informazio horren osotasuna babesteko gomendioak edo proposamenak egitea Kontseiluari.
 - d. Kontseilu Errektoreari kontu-auditoreen edo auditoretza-sozietateen hautapena, izendapena, berrautapena eta ordezkapena proposatzea, horrek Batzar Nagusira bidera dezan, eta hautapen-prozesuaren erantzukizuna bere gain hartzea, araudi aplikagarriarekin bat. Era berean, kontu-auditorearen kontratazio-baldintzak

proposatzea, harengandik aldizkako informazioa jasotzea auditoretza-planari eta hura gauzatzeko prozesuari buruz eta haren independentzia babestea dagozkion eginkizunetan.

- e. Kontu-auditoreekin edo auditoretza-sozietateekin harremanetan egotea, horien independentzia arriskuan jar dezaketen gaien eta kontu-auditoretzaren prozesuarekin zerikusia duten bestelakoen berri izateko eta Batzordean aztertzeko, baita, behar izanez gero, debekatuta ez dauden zerbitzuak baimentzeko ere, 2014ko apirilaren 16ko 537/2014 (EB) Erregelamenduaren 5. artikuluko 4 eta 6.2.b) apartatuetan ezarritakoaren eta Kontu Auditoretzaren uztailaren 20ko 22/2015 Legean, independentzia-araubideari buruzkoan, aurreikusitakoaren arabera. Era berean, kontu-auditoretzaren alorreko legerian eta arauetan aurreikusita dauden gainerako jakinarazpenak ere jasoko ditu. Edonola ere, entitatearekiko edo entitatearekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten entitateekiko independenteak izatearen adierazpena jaso beharko du, urtean behin, kontu-auditoreengandik edo auditoretza-sozietateengandik, baita kanpoko auditoreak edo horri lotutako pertsonak edo entitateek emandako nolanahiko zerbitzu gehigarriei eta haiengandik jasotako ordainsariei buruzko informazio xehatu eta banakakoa ere, kontu-auditoretzaren jarduera erregulatzen duen arautegian xedatutakoaren arabera.
- f. Urtean behin, kontu-auditoretzaren txostena argitaratu aurretik, kontu-auditoreen edo auditoretza-sozietateen independentziari buruzko iritzia jasoko duen txostena argitaratzea. Txosten horrek, kasu guztietan, aurreko letrak aipatzen dituen zerbitzu gehigarri guztien prestazioari buruzko balorazio arrazoitua jaso beharko du, bai banaka eta bai multzoan hartuta, lege-auditoretza kanpo utzita eta kontu-auditoretzaren jardueraren independentzia-araubidearen edo araudiaren harira.
- g. Batzar Nagusiak edo Kontseiluak onartu behar dituen eragiketa lotuei buruzko informazioa ematea, eta onarpena eskuordetuta duten eragiketetarako konpainiak ezarrita duen barne-prozedura gainbegiratzea.
- h. Aldez aurretik Kontseilu Errektoreari informazioa ematea, legean, estatutu sozialetan eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduan aurreikusitako gai guztiei buruz, eta, zehazki, hauei buruz:
 - Finantza-informazioa eta Kudeaketa Txostena, barne hartuta, bidezkoa denean, entitateak aldizka eman beharreko nahitaezko informazio ez-finantzarioa ere.
 - Partaidetzak sortu edo eskuratzea asmo bereziko entitateetan edo egoitza zerga-paradisutzat jotako herrialde edo lurraldeetan dutenetan.

- i. Jokabide-kodeak eta gobernu korporatiboko arauak betetzen direla gainbegiratzea.
- j. Barne Ikuskaritzaren area ebaluatzea, haren funtzioak eta baliabideak onartzea eta urtero haren jarduketa-planak Kontseiluari aurkeztea, onar ditzan, entitatearen benetako beharretarako egokiak direla ziurtatzearen. Era berean, Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak ziurtatu behar du barne-auditoretzako langileen profilak egokiak direla eta objektibotasunez eta independentziaz egin dezaketela euren lana.
- k. Barne-ikuskaritzaren funtzioari dagozkion eta Kontseilu Errektorearen esku-hartzerik behar ez duten agiri operatiboak onestea (prozedurak eta bestelako eskuliburu operatiboak), bai eta alor horretako politiketako aldaketa ez-nabarmenak ere. Kontseilu Errektoreak onartu beharreko alor horretako politikei eta bestelako barne-arau batzuei dagokienez, Kontseiluari aurkeztu aurretik aztertu behar ditu Batzordeak.
- l. Aldez aurretik Kontseilu Errektoreari informazioa ematea, araudia betearaztearen esparruan dituen eskumeneko gai guztiei buruz, betiere araudietan, estatutu sozialetan eta Kontseilu Errektorearen Erregelamenduan aurreikusita badaude.
- m. Entitateari eragiten dioten eta araudia betearaztearen funtzioari lotuta dauden politikak zehazten eta ebaluatzen laguntzea eta Kontseilu Errektoreari horretaz aholku ematea, politika horiek kudeatzeko ezarritako kontrol-prozedurari jarraikiz.
- n. Araudia betearaztearen funtzioa gainbegiratzea, hargatik eragotzi gabe eginkizun hori Kontseilu Errektoreak zuzenean betetzea.
- o. Araudia betearaztearen funtzioari dagozkion eta Kontseilu Errektorearen esku-hartzerik behar ez duten agiri operatiboak onestea (prozedurak eta bestelako eskuliburu operatiboak), bai eta alor horretako politiketako aldaketa ez-nabarmenak ere. Kontseilu Errektoreak onartu beharreko alor horretako politikei eta bestelako barne-arau batzuei dagokienez, Kontseiluari aurkeztu aurretik aztertu behar ditu Batzordeak.
- p. Aldian behin ebaluatzea araudia betearaztearen alorreko urteko programen funtzionamendua, eta haiek hobetzeko proposamenak egitea.
- q. Kontseilu Errektoreak agintzen edo baimentzen dion beste zeinahi eginkizun, barne-ikuskaritzaren eta/edo araudia betearaztearen funtzioei dagozkienak.

4. Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, presidenteak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan behar dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.

Barne-ikuskaritzaren funtzioaz eta araudia betearaztearen funtzioaz arduratzen direnak bilerara deitu ditzake Batzordeak, eta pertsona horiek laguntza eta eskatzen zaien informazioa eman behar dute, nahitaez. Illo beretik, Batzordeak bileretan parte hartzeko eskatu ahal izango die zuzendaritza-taldeko kideei, entitateko langileei edota kontu-auditoreei.

5. Batzordea baliozkotasunez eratutzat joko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute, eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Presidentearen botoak ebatziko ditu berdinketak. Batzordeak saioen aktak egingo ditu eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaitan.
6. Aurreko ataletan agertzen ez diren kontuetan, Kontseilu Errektorera ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira, analogiaz. Gainera, artikulua honetan xedatutakoaren kalterik gabe, Kontseilu Errektoreak onarturiko Araudi bat izango du Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordeak, hain zuzen ere Batzordeak berak aurkezturiko proposamenean oinarriturikoa. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

11. artikulua – Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea

a) Araudi bera bi batzordeentzat

1. Kontseilu Errektoreak Izendapenen Batzordea eta Ordainsarien Batzordea osatuko ditu bere barruan, kontseilari ez-exekutiboez. Kideen herenak gutxienez eta Kontseilu Errektoreak izendatuko duen 2 batzordeotako lehendakariak kontseilari independente izateko baldintzak bete beharko dituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilarik osatuko duten batzorde bakoitza, baina hiru izango dira gutxienez.
2. Batzordeek behar adina bilera egingo dituzte, lehendakariak deitzen baditu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan beharko dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.
3. Batzordeak baliozki eratutzat joko dira, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeetako kideek boto bana izango dute, eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

4. Batzordeek saioen aktak egingo dituzte eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango diote Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaietan.
5. Entitatean bere zereginari lotutako eginkizun profesionalak betetzen dituzten pertsonak bileretara joatea eska dezakete batzordeek.
6. Aurreko ataletan aipatu gabeko gaietan, Kontseilu Errektorera ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira. Bestalde, artikulua honetan xedatutakoaren kalterik gabe, Kontseilu Errektoreak onarturiko Araudi bat izango dute Batzordeek, hain zuzen ere Batzordeek berek aurkezturiko proposamenen oinarriturikoa. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

b) Izendapenen Batzordea

1. Hona hemen Izendapenen Batzordearen eginkizunak:
 - a. Kontseilu Errektoreko postu hutsak hornitzeko hautagaiak bilatu eta gomendatzea, Kontseilu Errektoreak edo Batzar Nagusiak onets ditzan.
 - b. Kontseilu Errektorearen ezagutzen, gaitasunaren, aniztasunaren eta esperientziaren oreka ebaluatzea eta izendapen zehatz baterako behar diren eginkizunak eta gaitasunak deskribatzea, bai eta lanpostua betetzeko aurreikusitako arduraldia balioztatzea ere.
 - c. Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen egitura, tamaina, eraketa eta jarduketa aztertzea eta egin beharreko aldaketak gomendatzea.
 - d. Aldian behin (urtean behin gutxienez), Kontseilu Errektorearen eta bertako kideen egokitasuna aztertzea eta ondorioak Kontseilu Errektoreari jakinaraztea.
 - e. Aldian behin, Kontseilu Errektoreak goi-zuzendaritzako kideak hautatu eta izendatzeko jorratzen duen politika berrikustea eta gomendioak ematea.
 - f. Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan esleitzen zaizkion eginkizunak.
 - g. Kontseilu Errektorean ordezkariarik txikiena duen sexuarentzako ordezkari-taldea helburua finkatzea eta helburu horretara iristeko orientabideak lantzea.

- h. Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek finkaturiko gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.
- 2. Izendapenen Batzordearen eginkizunen artean egongo da, halaber, ahal den neurrian eta etengabe zaintzea Kontseilu Errektorearen erabakiak pertsona bakarraren edo talde txiki baten mende egon ez daitezen eta, horrenbestez, Entitate osoaren interesak kaltetu ez ditzaten.
- 3. Izendapenen Batzordeak egoki deritzen baliabideak erabili ahal izango ditu bere eginkizunak betetzeko, kanpoko aholkularitza ere bai, eta behar dituen funtsak jasoko ditu horretarako.
- 4. Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko langileen egokitasuna balioztatu eta informatzeko ondoreetarako, Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan oinarrituko da Batzordea.

c) Ordainsarien Batzordea

- 1. Hona hemen Ordainsarien Batzordearen eginkizunak:
 - a. Kontseilu Errektoreak eta Batzar Nagusiak ordainsariei buruz hartu beharreko erabakiak prestatzea, bereziki Kontseilu Errektoreko eta Zuzendaritza Kontseiluko kideen eta identifikaturiko beste langile batzuen ordainsariei dagokienez.
 - b. Kontseilu Errektoreari laguntza eta aholkua eskaintzea Entitatearen ordainsari-politika zehazteko, eta generoari dagokionez politika hori inpartziala izan dadin eta askotariko generotako langileen tratu-berdintasuna babes dezan.
 - c. Kontseilu Errektoreari laguntzea ordainsari-politika, -jardunbideak eta -prozesuak kontrolatzen, eta ordainsari-politika betetzen dela bermatzen.
 - d. Indarrean den ordainsari-politika egunean dagoela egiaztatzea eta beharrezko aldaketak proposatzea.
 - e. Ordainsarien arloko kanpoko aholkularien izendapena berrikustea, Kontseilu Errektoreak aholkularitza edo laguntza jasotzeko halakorik kontratatzea erabakitzen badu.
 - f. Ordainsari-politikei eta -jardunbideei buruz bazkideei ematen zaien informazioa egokia dela bermatzea, bereziki ordainketa finkoaren eta aldakorraren arteko ratioa handitzeko proposamenari dagokionez.

- g. Indarrean jarritako mekanismoak eta sistemak ebaluatzea, ordainsari-sistemak era guztietako arriskuak, likidezia- eta kapital-mailak kontuan hartzen dituela bermatzeko; ordainsari-politika orokorrak arriskuen gestio egoki eta eraginkorra sustatu eta horrekin koherentea dela ziurtatzeko, eta, era berean, Entitatearen negozio-estrategiarekin, helburuekin, kultura eta balio korporatiboekin, arrisku-kulturarekin eta epe luzeko interesekin bat datorrela egiaztatzeko.
 - h. Eraitza-helburuen lorpena eta arriskuaren ex-post doikuntza-beharrak ebaluatzea, ordainsariak murrizteko eta jada ordaindutakoak berreskuratzeko klausulak aplikatzea barne.
 - i. Askotariko egoera posibleak berrikustea, barneko eta kanpoko gertakarien aurrean ordainsari-politikek eta -jardunbideek nola erreakzionatzen duten aztertzeko; arriskua ematea eta ex-ante doikuntza zehazteko erabilitako irizpideen atzera begirako probak egitea, benetako arrisku-erantzutan oinarrituta.
- 2. Ordainsarien Batzordeak zuzenean gainbegiratu du kontrol independenteko eginkizunen zuzendaritzen ordainsaria. Eginkizun horiek Barne Ikuskaritzakoak, Araudia Betearaztekoak eta Arriskuaren Kontrol Globalekoak dira.
 - 3. Erabakiak prestatzean, bazkide, inbertsiogile eta Entitateko beste alderdi interesdun batzuen epe luzeko interesak eta interes publikoa hartuko ditu aintzat Ordainsarien Batzordeak.
 - 4. Araudi aplikagarriak agintzen badu Kontseilu Errektoreak langileen ordezkariak izan behar dituela, Ordainsarien Batzordeak ere langileen ordezkari bat edo gehiago izango du.
 - 5. Ordainsarien Batzordeak:
 - a. Ordainsari-politikak eta -jardunbideak ezartzeari, gainbegiratzeari eta berrikusteari dagokienez, eskuragarri izango ditu Kontseilu Errektorearen erabakiak hartzeko prozesuaren inguruko datuak eta informazio guztia.
 - b. Eskura izango ditu finantza-baliabide egokiak, bai eta kontrol independenteko eginkizunei buruzko informazioa eta datu guztiak, murrizketarik gabe.
 - c. Espezializazio-arlo bakoitzaren barruan, kontrol independenteko eginkizunetan eta bestelako eginkizun garrantzitsuetan (giza baliabideetan, gai juridikoetan eta plangintza estrategikoan, adibidez) parte-hartzea egokia bermatuko du, eta, beharrezkoa bada, kanpoko aholkularitza eskatuko.

6. Ordainsari-politiken eta -jardunbideen zehaztapenean eta funtzionamendu egokian eragina izan dezaketen jarduerak lantzen dituzten Kontseilu Errektoreko beste batzorde batzuekin elkarlanean arituko da, eta egindako jardueren inguruko informazio egokia emango dio Kontseilu Errektoreari eta, dagokionean, Batzar Nagusiari.

11.bis. artikulua - Arrisku Batzordea

1. Kontseilu Errektoreak Arrisku Batzordea osatuko du bere barruan, funtzio exekutiborik ez duten kontseilariekin. Horiek Entitatearen arrisku-estrategia eta arriskuarekiko joera osotasunean ulertu eta kontrolatzeko ezagutzak, gaitasuna eta esperientzia izan behar dituzte. Kontseilu Errektoreak erabakiko du zenbat kontseilari osatuko duten batzordea, baina 3 izango dira gutxienez.
2. Kideen herena gutxienez, eta Kontseilu Errektoreak izendatuko duen lehendakaria, beti, kontseilari independenteak izango dira.
3. Arrisku Batzordeak, eginkizun operatiboak ez ezik, eskumen hauek ere izango ditu, gutxienez:
 - a. Kontseilu Errektoreari aholku ematea, Entitatearen egungo eta etorkizuneko arriskuarekiko joera orokorrari eta arlo horretarako estrategiari buruz, eta laguntzea estrategia hori aplikatzen eta Entitateari eragiten dioten edo eragin diezaioketen arriskuak gestionatu, gainbegiratu eta murrizteko politika zehatzak zaintzen.
 - b. Egiaztatzea bezeroei eskainitako aktiboen eta pasiboen prezio-politikak aintzat hartzen dituela Entitatearen enpresa-eredua eta arrisku-estrategia. Bestela, Arrisku Batzordeak hori zuzentzeko plan bat aurkeztuko dio Kontseilu Errektoreari.
 - c. Kontseilu Errektoreari aholku ematea, Entitatearen arrisku garrantzitsu guztiak gestionatu eta gainbegiratzeko.
 - d. Kontseilu Errektoreari estres-testaren eta kapital-plangintzaren inguruko aholkuak ematea, arriskuei dagokienez.
 - e. Arriskuak gestionatzeko eta barne-antolamenduaren eraginkortasuna bermatzeko baliabide egokiak esleitzen direla bermatzea.
 - f. Kontseilu Errektorearen eta erakundearen artean arriskuen inguruko informazio-kanal eraginkorrak daudela ziurtatzea, eta Batzordeak berak eta Kontseilu Errektoreak arriskuei buruz jaso beharreko

informazioaren izaera, kopurua, formatua eta maiztasuna zehaztea, Kontseilu Errektorearekin batera.

- g. Aktiboen balioztapena, kredituen kanpo-kalifikazioen erabilera, arriskuei buruzko barne-ereduak eta funtzionalki Batzordearen mende dagoen Arriskuak Gestionatzeko Unitatea gainbegiratzea.
- h. Arrazoizko ordainketa-politikak eta -jardunbideak ezartzen laguntzea. Xede horrekin, Arrisku Batzordeak aztertu egingo du ea ordainketa-sisteman aurreikusitako pizgarrien politikak aintzat hartzen dituen arriskua, kapitala, likidezia eta irabazien probabilitatea eta aukera. Izendapenen eta Ordainsarien Batzordeak ere egin dezake hori.

Indarrean dagoen legeriak eta Estatutu Sozialek Entitatearen arriskuak kudeatzeko politiken inguruan finkatutako gainerako eginkizunak betetzea, baita Kontseilu Errektorearen erabakiz esleiturikoak ere.

- 4. Batzordeak behar adina bilera egingo ditu, lehendakariak deitzen badu, bere kabuz edo edozein kidek eskatuta. Kideek pertsonalki joan beharko dute bileretara, ez baitago beste inork ordezkatzeko aukerarik.
- 5. Batzordea baliozki eratutzat joko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean. Batzordeko kideek boto bana izango dute, eta emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira erabakiak. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak. Batzordeak saioen aktak egingo ditu eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaietan.
- 6. Batzordeak saioen aktak egingo ditu eta aztertutakoaren, lanen emaitzaren eta hartutako erabakien berri emango dio Kontseilu Errektoreari, garrantzizko gaietan.
- 7. Entitatean bere zereginari lotutako eginkizunak betetzen dituzten pertsonak bileretara joatea eskatu ahalko du Batzordeak.
- 8. Aurreko ataletan aipatu gabeko gaietan, Kontseilu Errektorera ezarritako funtzionamendu-arauak ezarriko dira. Gainera, artikulua honetan xedatutakoaren kalterik gabe, Kontseilu Errektoreak onarturiko Araudi bat izango du Batzordeak, hain zuzen ere Batzordeak berak aurkezturiko proposamenean oinarriturikoa. Araudi horretan garatu eta zehaztuko dira funtzionamendu-arauak.

V. TITULUA – KONTSEILU ERREKTOREAREN FUNTZIONAMENDUA

12. artikulua – Bilerak

1. Kontseilu Errektoreak hilean behin egingo du ohiko bilera. Dena den, aparteko deialdia ere egin dezake, lehendakariaren ekimenez edo kideetako bik, zuzendari nagusiak edo Kontseilu Sozialak (kide gehienek arrazoitutako eskaera bidez) eskatzen badute. Eskaera horrek hamar egunean erantzunik jasotzen ez badu, eskaera egin duenak deitu ahal izango du bilera, betiere Kontseiluaren heren baten babesu badu.

Deialdia ez da beharrezkoa izango, baldin eta, kontseilari guztiak bertan egonik, Kontseilua biltzea aho batez erabakitzen badute.

2. Lehendakariak egingo ditu Kontseilu Errektorearen bileretarako deiak, aurreko atalean aurreikusitako kasuan izan ezik. Zuzendari nagusiari, Kooperatibako teknikariari eta gai sozialak egoki bideratzeko interesa dutenei ere egin ahal izango die bileran parte hartzeko deia.
3. Deialdia idatziz egingo da, bilera baino 3 egun lehenago gutxienez. Bileraren gai-zerrenda, eguna, ordua eta lekua zehaztu beharko dira. Larrialdirik izanez gero, txikitu egin ahal izango da epe hori, baina aktan jaso beharko da gertaera.
4. Deialdian gai-zerrenda agertuko da beti, eta informazio garrantzitsua ere bai, behar bezala laburtuta eta prestatuta.

13. artikulua – Saioen garapena

1. Kontseilua baliozki eratutzat joko da, kideen erdiak baino gehiago agertzen direnean.
2. Kontseilu Errektoreko kideek bilera guztietara joan behar dute nahitaez, bidezko arrazoirik ez badago tartean. Kontseiluko kideek ezingo dute ordezkariarik bidali.
3. Erabakiak hartzeko, nahitaezkoa izango da boto baliodunen erdiak baino gehiago lortzea, indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan izan ezik. Kontseiluko kide bakoitzak boto bat izango du. Lehendakariaren botoak ebatziko ditu berdinketak.

4. Kontseilu Errektoreko kideen eta funtsezko langileen egokitasuna balioztatzearen ondoreetarako, Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan oinarrituko da Batzordea.
5. Bilera-aktetan eztabaiden laburpenak, erabakien testuak eta bozketen emaitzak jasoko dira, eta lehendakariak eta idazkariak sinatuko dituzte.
6. Lehendakariak zuzenduko du eztabaida, eta kontseilari guztien parte-hartzea bultzatuko du.

VI. TITULUA – KONTSEILARIAK IZENDATZEA ETA KARGUA UZTEA

14. artikulua - Kontseilariak izendatzea

Batzar Nagusiak izendatuko ditu kontseilariak, Kreditu Kooperatiben Legean, berori garatzeko xedapenetan, kooperatiben legeria orokorrean eta Estatutuetan aurreikusitakoarekin bat.

15. artikulua - Kontseilariak izendatzeko prozedura

Kontseilu Errektoreak, bere eskumenen esparruan eta Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuarekin bat, proposatutako hautagaiek Eskuliburu horretan jasotako baldintzak betetzen dituztela behatuko du.

Eskuliburu horretan eskatutakoaren kalterik gabe eta modu osagarrian, ezingo dira kontseilari izateko proposatu edo aukeratu honako hauek:

- a. Kooperatibaren jarduerekin lotutako eginkizunak dituzten administrazio publikoetako goi-karguak eta gainerako langileak, betiere ez badira, hain zuzen, lan egiten duten erakunde publikoaren ordezkariak.
- b. Batzar Nagusiaren baimenik gabe Kooperatibaren jardunarekiko lehiazkoak edo osagarriak diren jarduerak gauzatzen dituztenak beren edo inoren kontura.
- c. Adin txikikoak eta Batzar Nagusiak kontseilariak aukeratu behar dituen egunean 70 urte edo gehiago dituztenak.

- d. Porrot eginak eta birgaitu gabeko konkurtsopekoak, legeak ezinduak, kargu publikoetarako gaitasuna kenduz kondenatuak, legeak edo sozietate-xedapenak larriki ez betetzeagatik eta, batik bat, jabetzaren kontrako delituengatik kondenatuak eta, azkenik, diziplina-espediente bidez kreditu-erakundeetako kontseilari eta zuzendari izateko gaitasuna kenduta dutenak.
- e. Beste kreditu-erakunde batzuetako kontseilariak, administratzaileak eta goi-zuzendariak, kapital sozialean parte hartzen dutenak izan ezik.
- f. Lau erakunde baino gehiagotako administrazio-kontseiluetako kide direnak.

Ondore horietarako, ez dira honako hauek zenbatuko: erakundeen administrazio-organoetako postuak, baldin eta interesatua, ezkontidea edo aurreko nahiz ondorengo ahaideak, batera zein banaka, kapital soziala administrazio-kontseiluko kide-kopuruarekin zatituz ateratzen den zenbatekoa baino akzio gehiagoren jabe badira; helburu batez ere komertzialak ez dituzten erakundeetako karguak, barne direla ongintzazko erakundeetakoak, irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuetakoak eta administrazio-organoko kideen edo haien senideen interes ekonomiko pribatuak kudeatzeko bakarrik sortzen diren enpresetakoak, baldin eta administrazio-organoko kidearen eguneroko kudeaketarik behar ez badute.

Kargu bakartzat hartuko dira talde bereko entitateetan betetzen diren kargu guztiak.

- g. Beren kabuz edo beste pertsona edo entitate batzuen izenean Entitatearekin mugaeguneratutako edonolako zor galdagarriak dituztenak, edo karguan daudela Kooperatibarekin dauzkaten betebeharrak betetzen ez dituztenak.
- h. Egokitasun-balorazioa gainditzen ez dutenak, Caja Laboral Popular Coop. de Crédito kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan eta Estatutu hauen 36. artikuluan ezarritako irizpide eta prozeduren arabera.

16. artikulua - Kontseilarien berrautapena

Kontseilariak berriz hautatu ahal izango dira.

Kontseilu Errektoreak kontseilariak berrautatzea proposatzen badio Batzar Nagusiari, Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan aurreikusitakoa errespetatu beharko da.

17. artikulua - Karguaren iraupena

Kontseilu Errektoreko kideak 5 urterako aukeratuko dira. Dena dela, Batzar Nagusiak nahi adina aldiz hautatu ahal izango ditu berriro, iraupen bereko epealdietarako. Ezin izango dira hautatu edo berrautatu aukeraketa egingo den Batzar Nagusiaren egunean 70 urte edo gehiago dituzten pertsonak.

Kontseilariak agintaldia amaitzen zaienean aldatuko dira, bakoitzaren hautaketa-data aintzat hartuta.

18. artikulua. Kontseilarien kargu-uztea

1. Agintaldia amaitzen duten edo beste edozein arrazoiengatik kargua uzten duten kontseilariak karguan jarraituko dute, harik eta eurak ordezteko hautatutakoek kargua hartu arte. Espainiako Bankuaren egokitasun-balorazioa gainditzten dutenean gertatuko da hori, eta erakunde horren Goi Karguen Erregistroak kontseilari berriak inskribatu direla jakinarazten duenean edo une bakoitzean indarrean dagoen araudiaren arabera bidezkoa denean.

Jakinarazpen horiek banan-banan egiten badira, ordezkapenak ere banaka egingo dira, kargua utzi behar duten kontseilarien adinaren arabera: aurrena kontseilari zaharrenek utziko dute kargua, eta gazteenek gero.

Ordezkapen-prozesu guztietan, eta ordezkapen horiek egiteko ordenan (lehenago adierazitakoaren arabera), estatutu-araudia errespetatu behar da; alegia, titularrak eta ordezkoak mailaren (bazkideak, langileak eta gainerakoak) arabera aukeratzen dira, eta, beraz, maila bakoitzeko ordezkoek beren mailako titularrak soilik ordezkari ditzakete.

2. Kontseilariak beren kargua Kontseilu Errektorearen esku utzi beharko dute eta, Kontseiluak egoki irizten badio, dimisioa formalizatuko dute, kasu hauetan:
 - Legean aurreikusitako bateraezintasun- edo debeku-kasuren batean badaude.
 - Ustez delitua den dolozko egitate batengatik auzipetuta badaude, edota kontrol-agintaritzak falta astun edo oso astun baten ondoriozko diziiplina-espedientea ireki badie.
 - Kontseilari-betebeharrak urratzeagatik Kontseiluak kargu hartzen badie, beharrezko prozeduraren ondoren.

- Kontseiluan egoteak Kooperatibaren interesak arriskuan jar baditzake; Kontseiluaren funtzionamenduan, eta are merkatuan duen ospean eta sinesgarritasunean ere, eragin negatiboa izan badezake, edota izendapenaren arrazoiak desagertzen badira.
- Kooperatibarekin dituzten harreman komertzialetan jarduketa desagokiak antzematen badira, dela jokabidean, dela kreditu-eragiketen gestioan, dela beste edozeinetan, Kooperatibaren izen ona, irudi publikoa edo interesak kaltetzeko moduan.

Gerora sortutako arrazoi baten ondorioz Araudi honetako 15. artikuluan aurreikusitako egoeretako batean badaude.

- Kontseilu Errektoreak bertako kide izateko egokitasuna ukatzen badie.

19. artikulua - Bozketen objektibotasuna eta sekretua

Izendatzeko, berrautatzeko edo kargua uzteko proposamenen eraginpeko kontseilariak ez dute esku hartuko proposamen horien inguruko eztabaida eta bozketetan.

Edozein kidek eskatzen badu, kontseilarien izendapenari, berrautapenari edo kargua uzteari lotutako bozketa guztiak sekretuak izango dira.

VII. TITULUA – KONTSEILARIA INFORMATZEA

20. artikulua - Informatzeko eta aztertzeke ahalmenak

2. Kontseilariak Kooperatibaren edozein alderdiri buruzko informazioa jasotzeko ahalmen zabalak ditu, bai eta sozietatearen eragiketei buruzko liburuak, erregistroak, agiriak eta gainerako aurrekariak aztertzekeak eta instalazio guztiak bisitatzekeak ere. Informazioa jasotzeko eskubidea, dagokionean, Kooperatibaren enpresa filialetara ere hedatzen da.
3. Kooperatibaren ohiko gestioa ez nahastearren, informazioa jasotzeko ahalmena Kontseilu Errektoreko lehendakariaren, lehendakariordearen edo idazkariaren bidez gauzatuko da. Horiek jasoko dituzte kontseilariaren eskaerak, eta horiek emango diote informazioa zuzenean, antolakundean dagokion mailako mintzakide egokiak eskainiz edo nahi dituen azterketa-jarduerak in situ burutzeko neurriak hartuz.

21. artikulua - Adituen aholkularitza

1. Egoera berezietan beren eginkizunak burutzeko aholkua behar dutenean, kanpoko adituak kontratatzeke edo barruko adituen zerbitzuak eskuratzeko eskatu ahal izango diote kontseilariak Kontseilu Errektoreari. Horrela, kargua betetzean agertzen zaizkien garrantzizko arazo zehatz eta zailei buruzko aholkua jaso ahal izango dute.
2. Kontratatzeke erabakia Kooperatibako lehendakariari jakinarazi behar zaio, eta Kontseilu Errektoreak aukera izango du gehiengo soilez betoa jartzeko, honako hauek egiaztatuz gero:
 - Ez dela beharrezkoa kontseilariaren eginkizunak egoki betetzeko.
 - Gehiegizko kostua duela, arazoaren garrantzia eta Kooperatibaren aktiboak eta sarrerak ikusita.
 - Eskatu den laguntza teknikoa egoki eskain dezaketela Kooperatibako aditu eta teknikariak.

VIII. TITULUA – KONTSEILARIAREN ORDAINSARIA

22. artikulua - Kontseilariaren ordainsaria

1. Zuzeneko gestio-lanak gauzatzen dituztenean ordainduko zaie Kontseilu Errektoreko kideei, eta lan-bazkideentzat ezarritako ordainsari-mailen arabera zenbatekoa jasoko dute. Dena den, beren eginkizunak betetzerakoan sortutako gastuak ordaindu egingo zaizkie.
2. Karguak eskatzen duen dedikazioaren ondorioz kideren batentzat ordainsaria proposatzen badiu Kontseilu Errektoreak Batzar Nagusiari, ordainsari hori neurrizkoa izaten ahaleginduko da.
3. Kontseilarien ordainsaria guztiz gardena izango da.

IX. TITULUA – KONTSEILARIAREN BETEBEHARRAK

23. artikulua - Kontseilariaren betebeharrak orokorrak

1. Araudi honetan ezarritakoarekin bat, Kooperatibaren gestioa bideratu eta kontrolatzea da kontseilariaren eginkizuna, haren helburu soziala betetzea xedetzat harturik.
2. Eginkizunak gauzatzean, kontseilariak enpresari txukunaren eta ordezkari leialaren arretaz jokatu du, eta honako hauek egin beharko ditu, bereziki:
 - Kontseiluaren eta partaide den organo delegatuen bileretarako informazioa jaso eta saioak egoki prestatu.
 - Partaide den organoetako bileretara joan eta deliberazioetan aktiboki parte hartu, beraren irizpidearen bidez erabakiak hartzen laguntzeko.
 - Kontseilu Errektoreak agintzen dion eta beraren dedikazio-konpromisoan sartzen den arrazoizko beste edozein eginkizun zehatz gauzatu.
 - Kontseilu Errektorea jakinaren gainean jarri Kooperatibaren kudeaketan gertatutako edozein irregulartasun bere belarrietara iristen bada, eta edozein arrisku-egoera zaindu. Horretarako, hurrengo bilerako gai-zerrendan behar diren gaiak sartzeaz arduratuko da, edota horretarako aparteko bilera bat deitzez.
 - Deialdia egiteko ahalmena duten pertsonen Kontseiluaren aparteko bilera bat deitzeko edo hurrengo bileraren gai-zerrendan egoki deritzen gaiak sartzeko eskatu.

24. artikulua - Kontseilariaren konfidentzialtasun-betebeharra

1. Kontseilariak sekretupean gordeko ditu Kontseilu Errektoreko eta partaide den organo delegatuetako deliberazioak, eta, oro har, ez du emango karguaren ondorioz eskuratu duen informaziorik. Sekretu hori urratzea arau-hauste oso astuntzat eta kargugabetzeko arrazoitzat joko da; dena den, bestelako erantzukizun batzuk ere sortu ahal izango ditu.
2. Konfidentzialtasun-betebeharra iraunkorra da, eta, beraz, indarrean jarraituko du edozein arrazoiengatik kontseilariak kargua utzi ondoren ere, bereziki Kooperatibaren antzeko helburu soziala duen beste erakunde batean hasiz gero lanean.

25. artikulua - Lehian ez jarduteko betebeharra

Kontseilariak ezin die zerbitzu profesionalik eskaini Kooperatibaren helburu sozial bera edo antzekoa duten erakundeei. Betebehar horretatik kanpo geldituko dira taldeko beste sozietate batzuetan betetzen diren karguak.

26. artikulua - Interes-gatazka eta eragiketa lotuak

Interes-gatazka

1. Kontseilariak, leialtasun-eginbeharra betetzeko, ez du parte hartuko berak edo berari lotutako pertsona batek zuzeneko edo zeharkako interes-gatazka duen akordio edo erabakien eztabaidan eta bozketan. Abstentzio-betebehar horretatik kanpo geratuko dira kontseilari gisa eragiten dioten akordio edo erabakiak, hala nola bera Kontseilu Errektoreko karguetarako izendatzea edo kargugabetzea, edo antzeko esanahia duten beste batzuk.

Erregelamendu honen ondoreetarako, kontseilariak lotutako pertsonatzat hartuko dira Kapital Sozietateen Legearen 231. artikuluan edo kreditu-kooperatibentzat egon daitekeen berariazko beste araudi batean adierazitakoak.

2. Era berean, kontseilariak, leialtasun-eginbeharra betetzeko, beharrezko neurriak hartuko ditu bere interesak (beraren konturakoak edo inoren konturakoak) interes sozialarekin eta Kooperatibarekiko dituen betebeharrekin gatazkan jar ez daitezen.

Zehazki, betebehar horren ondorioz, kontseilariak ezin izango du:

a) Transferentziarik egin Kooperatibarekin, salbu eta ohiko eragiketak badira, bezeroentzako baldintza estandarretan egiten direnak eta garrantzi txikia dutenak; hau da, entitatearen ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi fidela adierazteko beharrezko informazioak ez dutenak.

b) Kooperatibaren izena erabili edo kontseilari-izaeraz baliatu eragiketa pribatuetan bidegabe eragiteko.

c) Aktibo sozialak —Kooperatibaren isilpeko informazioa barne— helburu pribatuetarako erabili.

d) Kooperatibaren negozio-aukerez baliatu.

e) Bere kargua betetzeari lotutako onurak edo ordainak eskuratu Kooperatibakoak eta haren taldekoak ez diren hirugarrenengandik, salbu eta kortesia hutseko arretak badira.

f) Kooperatibarekin egungo edo balizko lehia bideragarria sortzen duten norberaren edo inoren konturako jarduerak, edo beste edozein modutara kontseilaria Kooperatibaren interesekin gatazka etengabea jartzen dutenak, gauzatu.

Aurreko aurreikuspenak aplikatzekoak izango dira debekatutako ekintza edo jardueren onuraduna kontseilariari lotutako pertsona bat denean ere.

Kasu guztietan, kontseilariak gainerako kontseilariari eta, beharrezkoa izanez gero, Kontseilu Errektoreari ere jakinarazi beharko diete beraiek edo beraiei lotutako pertsonen Kooperatibaren interesekin duten zuzeneko edo zeharkako gatazka-egoera oro.

Eragiketa lotuak

1. Kontseilu Errektoreak berraztertu eta, dagokionean, onetsi egin beharko ditu Kooperatibak Kontseilu Errektoreko kideekin, zuzendari nagusiarekin, horien senitartekoekin (bigarren mailaraino) eta lotutako sozietateekin formalizatu nahi dituen arrisku-eragiketa guztiak, eta baimena eskatu beharko dio Espainiako Bankuari, baldin eta eragiketa horiek Espainiako Bankuaren 2/2016 Zirkularraren, gainbegiraketa eta kaudimenari buruzkoaren, 35. arauan ezarritako muga eta baldintzak gainditzen badituzte, edo, bestela, ezagutarazi egin beharko dizkio berehala.

2. Baldintza hauek bete beharko dituzte aurreko apartatuan adierazitako eragiketek, onartzekotan:

- Nahitaezkoa izango da Araudia Betearazteko Departamentuak edo Barne Ikuskaritzako Departamentuak, kasuan kasu, aldezturik emandako aldeko txostena.

- Akordioa isilpeko bozketaz hartu beharko da, gaia gai-zerrendan behar bezain argi sartu ostean.

- Kontseilari guztien bi herenen aldeko botoa beharko da, gutxienez, erabakia hartzeko. Eragiketaren edo zerbitzuaren onuraduna kontseilaria edo aipatutako senitartekoren bat bada, interes-gatazka dagoela ulertuko da eta pertsona horrek ezin izango du bozketan parte hartu.

- Isilpeko bozketa egin eta emaitza aldarrikatutakoan, egokia izango da hartutako erabakiarekiko zalantzak edo desadostasunak jasotzea.

3. Aurrekoa gorabehera, Kontseilu Errektorea jakinaren gainean egongo da Kooperatibak edo horren taldeko sozietateek, zuzenean edo zeharka, kontseilariekin, banakako edo itundutako bazkide titularrekin, partaidetza esanguratsua duten beste batzuekin edo araudi aplikagarriaren arabera alde lotutzat hartu behar diren beste pertsona batzuekin egiten dituzten eragiketa lotuez. Eragiketa lotuek Batzar Nagusiaren baimena beharko dute, baldin eta haien zenbatekoa edo balioa aktiboko partida guztien % 10ekoa edo handiagoa bada, urteko azken balantzearen arabera, eta Kontseilu Errektorearen baimena, baldin eta % 10ekoa baino txikiagoa bada. Edonola ere, Kontseiluak onspena eskuordetu ahal izango du.

Batzar Nagusiak edo Kontseiluak eragiketa lotu bat onartu aurretik, nahitaezkoa izango da Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen txostena. Batzordeak honako hau ebaluatu beharko du txostenean: ea eragiketa bidezkoa eta arrazoizkoa den Kooperatibaren ikuspegitik, eta, dagokionean, alde lotukoak ez diren bazkideen ikuspegitik. Horrez gain, ebaluazioak oinarri dituen aurrekontuen berri eman beharko du. Eragiketa lotuei buruzko informazioa Gobernu Korporatiboaren Urteko Txostenean sartu beharko da.

Talde barruko eragiketak

1. Batzar Nagusiari dagokio Kooperatibak interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egiten dituen eragiketak onartzea, baldin eta negozioa edo transakzioa, bere izaeragatik, legez organo horren eskumenekoa bada, eta, betiere, eragiketaren zenbatekoa edo balioa edo esparru-akordio edo -kontratu batean aurreikusitako eragiketa guztien guztizko zenbatekoa Kooperatibaren aktibo osoaren % 10ekoa baino handiagoa bada.
2. Administrazio-organismoari dagokio Kooperatibak interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egiten dituen gainerako eragiketak onartzea.
3. Administrazio-organismoak beste organo delegatu batzuei edo goi-zuzendaritzako kideei eskuordetu ahal izango die Kooperatibak interes-gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egiten dituen eragiketak onartzea, betiere eragiketa horiek ohiko enpresa-jardueraren barruan egiten badira —barne direla esparru-akordio edo -kontratu bat gauzatzearen ondoriozkoak— eta merkatuko baldintzetan amaitzen badira.
4. Aurreko apartatuen ondoreetarako, Kooperatibak mendeko sozietateekin egiten dituen eragiketak ez dira gatazka duten taldeko beste sozietate batzuekin egindako eragiketatzat hartuko, salbu eta mendeko sozietateko bazkide nabarmen batekin Kooperatibak ezin badu eragiketa zuzenik egin alde lotuekiko eragiketen erregimena aplikatu gabe.

27. artikulua - Aktibo sozialen erabilera

Kontseilariak ezingo du Kooperatibaren aktiborik erabili, ezta Kooperatiban duen posizioa ondare-abantaila lortzeko baliatu ere, salbu eta kontraprestazio egokia ordaindu badu.

28. artikulua - Publikoa ez den informazioa

Kontseilariak ezingo dute helburu pribatuetarako erabili publikoa ez den Kooperatibako informazioak.

29. artikulua - Negozio-aukerak

Kontseilariak ezin du Kooperatibaren negozio-aukerarik baliatu, ez beraren eta ez senitartekoren baten mesedetan, baldin eta aurretiaz Kooperatibari eskaintzen ez badio eta horrek uko egiten ez badio. Gainera, Kontseiluak baimena eman behar du negozio-aukera hori aprobetxatzeko.

Aurreko atalean jasotakoaren ondoreetarako, negozio-aukeratzat jotzen da inbertsio edo eragiketa komertzial bat egiteko edozein aukera, hauetako egoeraren batean sortu edo jakin dena: kontseilariak kargua betetzean, Kooperatibaren informazioa edo bideak erabiltzean edota hirugarrenaren eskaintza benetan Kooperatibari zuzenduta zegoela pentsatzeko arrazoi nahikoa daudenean.

30. artikulua - Zeharkako eragiketak

Kontseilariak Kooperatibarekiko leialtasunaren betebeharra urratuko du, baldin eta, jakinaren gain egonda, aurreko artikuluetan aurreikusitako baldintza eta kontrolak betetzen ez dituzten eragiketak baimentzen baditu edota jakinarazten ez baditu. Eragiketok kontseilariaren senitartekoren batek egindakoak izan daitezke, edota kontseilariak zuzendaritza-postu bat edo partaidetza garrantzitsua duen enpresa edo erakunderen batek gauzatutakoak.

31. artikulua - Kontseilariaren informatzeko betebeharra

Kontseilariak beste kooperatiba edo erakunde batzuetan betetzen dituen karguen, jardueren eta, oro har, Kooperatibako administratzaile-jardunean eragin garrantzitsua izan dezakeen edozein gertakizun edo egoeraren berri eman beharko dio Kooperatibari. Bereziki, Kontseilariak eta funtsezko langileak hautatzeko eta horien egokitasuna ebaluatzeko prozeduraren eskuliburuan jasota dauden eta Kontseilu Errektoreko kide izateko egokitasuna balioztatzean eragina izan dezaketen faktore guztien berri eman beharko du.

32. artikulua - Gardentasun-printzipioa

Kooperatibak bere kontseilariekin eta partaidetzapeko sozietateekin egindako eragiketen laburpena argitaratuko du Kontseilu Errektoreak, bere urteko informazio publikoan. Informazioak eragiketen bolumen globala eta eragiketarik garrantzitsuenen izaera jasoko du.

33. artikulua - Kontseilarien erantzukizuna

Sozietate anonimoetako administratzaileentzat xedatutakoak arautuko du Kontseilu Errektoreko kideen erantzukizuna.

Horrenbestez, honako hauek hartu beharko dira kontuan:

1. Kontseilariak Kooperatibaren, bazkideen eta hartzekodun sozialen aurrean erantzun beharko dute, legearen edo Estatutuen aurkako ekintzen ondoriozko kalteengatik eta karguan behar den arduraz ez jokatzegatik sortutako kalteengatik.
2. Ekintza edo erabaki kaltegarria bideratu zuen Kontseilu Errektoreko kide guztiek solidarioki erantzungo dute. Ez dute erantzukizunik izango, batetik, erabakia hartzen eta gauzatzen parte hartu ez zutenek eta horren berri ez zutela frogatzen dutenek eta, bestetik, ezagutu arren, kaltea saihesteko ahal zuten guztia egin zutenek edo, behintzat, berariaz aurka agertu zirenek.
3. Ez du inolaz ere erantzukizunetik libratuko erabaki edo egintza kaltegarria Batzar Nagusiak onartu, baimendu edo berretsi izanak.

X. TITULUA – KONTSEILUAREN HARREMANAK

34. artikulua - Harremanak bazkideekin

Kontseilu Errektoreak bide egokiak zehaztuko ditu bazkideek Kooperatibaren gestioaren harira egiten dituzten proposamenak ezagutzeko.

Bazkideek Batzar Nagusietan parte-hartze informatua izatea bultzatuko du Kontseilu Errektoreak, eta behar diren neurriak zehaztuko ditu Bazkideen Batzar Nagusiak legearen eta Estatutu Sozialen arabera dagozkion betekizunak egoki bete ditzan.

Bereziki, neurri hauek hartuko ditu Kontseilu Errektoreak:

- Batzarraren aurretik bazkideei informazioa ematen ahalegintzea,

bai legez dagokiena eta bai, legeak agindu ez arren, haientzat interesgarria dena eta zentzuz ematerik badagoena.

- Batzarraren aurretik bazkideek eskatutako informazio-eskaerei arretarik handinez erantzutea.
- Batzar Nagusiaren harira bazkideek egiten dituzten galderei ere arreta berberaz erantzutea.

35. artikulua - Harremanak publiko orokorrarekin

Kontseilu Errektoreak beharrezko neurriak ezarriko ditu honako hau bermatzeko: urteko kontuak prestatzeko erabiltzen diren printzipio, irizpide eta jardunbide profesional berberak erabiliko direla publikoaren esku jartzen den urteko (edo sei edo hiru hileko) informazio finantzarioa edota, dagokionean, zuhurtziak publikoaren esku jartzea eskatzen duen bestelakoa prestatzean, eta urteko kontuen fidagarritasun berbera izango duela.

Urteko dokumentazio publikoan, Kooperatibaren gobernu-arauei eta Gobernantza onaren araudiaren betetze-mailari buruzko informazioa txertatuko du Kontseilu Errektoreak.

36. artikulua - Harremanak auditoreekin

Kontseilu Errektoreak Kooperatibaren kanpoko auditoreekin dituen harremanak Ikuskaritzako eta Araudia Betearazteko Batzordearen bitartez bideratuko dira.

Kontseilu Errektoreak ez du auditoretza-enpresarik kontratatuko, baldin eta kontzeptu guztiengatik ordaindu beharreko zerbitzu-saria azken ekitaldiko sarrera guztien ehuneko bostetik gorakoa bada.

Kontseilu Errektoreak argibideak emango ditu Kooperatibak auditoretzaz bestelako zerbitzuen truke auditoretza-enpresari guztira ordaindu dionari buruz, arauz eskatzen den moduan.

Kontseilu Errektorea saiaturiko da auditoreak salbuespenik ez aurkitzeko moduan formulatzen behin betiko kontuak. Dena den, Kontseiluak bere irizpideari eustea erabakitzen badu, Batzar Nagusiari azalduko dizkio desadostasunaren edukia eta norainokoa.
